



Haurren haserrealdia kudeatzen ikasten.– Gurasolandia egitasmoan parte hartzen ari diren zenbait gurasok –2 eta 3 urte bitarteko haurrak dituzten aita-amak dira– ikastaro interesgarria jaso zuten astearte arratsaldean Villa Mirentxun, Mireia Centeno psikopedagogoaren eskutik. 'Emozioak onartzen eta haserrealdia kudeatzen' izenburupean, ikastarora bertaratutakoei euren seme-alaben senak eta emozioak ulertu eta bideratzeko hainbat gako eman zizkien. Besteak beste, aipatu ziren umeen "jarrera bortitzak" mugatu behar direla, "inoiz ez emozioak". Haserretzerakoan, gurasoek "onartu" egin behar dute haurraren sentimendu hori, eta "gidari" izan. Centenoren aburuz, umeen jokabide horri mugarik ez jartzeak ezin du zertan txarra izan, baldin eta segurtasunaren eta errespetuaren irizpideak urratzen ez badira. Tailerraren antolatzaile den Ttakun KEko kideek jakinarazi dutenez, ikastaroan parte hartu zuten gurasoak "oso gustura" irten ziren astearteko ekitalditik.

3 EUSKARA Gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpaina martxan

Azken urteetan egin bezala, Buruntzaldeko Euskara zerbitzuek gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzen duten herritarrak sarituko ditu. Atzo egin zuten aurtengo kanpainaren aurkezpena, Okendo plazan. Jon Antxordoki euskara zinegotziak azpimarratu zuen partaide kopurua gora doala; iaz 113 izan ziren eskualdean.

5 FESTAK Teresa Sorgina Zabaletara iritsiko da datorren astean

Zabaleta auzoko festak iristear daude. Datorren asteko asteartetik motorrak berotzen hasiko dira bizilagunak, haurrentzat antolatutako tailer eta jokoekin. Ostiralean lehertuko da festa, Teresa sorginaren jaitsierarekin. 19:00etan egingo zaio ongi etorria. Ekintzaz jositako asteburuaz gozatuko du auzoak ondoren.



**Maiatzaren
30ean,
astelehena,
ez da
TXINTXARRIRIK
argitaratuko.
Informazio
guztia
txintxarri.eus
atarian**

ERLAXATU ETA BABESTU
ZURE BEGIAK
ordenagailu, tablet, mugikor... pantailetatik

ESSILOR EYEZENEKIN,
**EGUZKITAKO BETAURREKO
GRADUATUAK OPARI**

www.multioplicasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Neure kabuz



Jexux Artetxe
Hauteskundeak

Urtebetean, hiru hauteskunde deialdi izango ditugu. Joandako abenduak, ekainerako iragarri direnak, eta oraindik deituzeko dauden EAekoak. Hau ikusita, oso tarte laburrean bozka egun gehiegi jarri direla entzun dugu. Hauteskunde aurreko kanpainak neketsu eta aspergarriak direla jende arruntarentzat. Eta, gainera, gastu publikoa biderkatuz. Nire iritziz ere, alderdi politikoek gastu urriagoa egin beharko lukete elezioen aurrean. Baina, herritarren parte-hartzearen kalitatea hautatzeko aukera libre eta ugariekin lotuta dago.

Ekaineko Espainiako Gorteetakoak eta Euskal Legebiltzarrekoak batera deitu zitezkeela pentsatu omen zuten Jaurkitzen. Azkenean, ez da horrela egin eta asmatu dutelakoan nago. Aipatutako arrazoi beragatik, aurrena: parte-hartzeo aukerak ez direlako murriztu behar, ugaritu baizik. Halaber, ezin direlako izaera ezberdineko hauteskundeak ekitaldi berean egin, nahasketarik sortu gabe. Eta nahasketak giro batean, parte-hartzearen kalitatea ere lausotu egiten baita.

Horrenbestez, Gasteizko Parlamentua osatzeko egin behar direnak udazkenerako deituko ditu lehendakariak. Legebiltzarren osaera nahikoa aldatuko dela aurreratu dute inkestek. Badirudi EAJ dela bere indarra sendotzen duen bakarra. Eta 'Podemos' taldearen sarrera, aldiz, beste guztien kalterako gertatuko dela. Lehendakartzarako hautagaien artean, ikusiteke dago zein izango den Urkulluren lehiakide nagusia. Ezker abertzalea Otegiren aldeko lan eskerga egiten ari bada ere, zaila egingo zaio neurriko alternatiba eraikitzea. Normalkuntzaren norabidean aurrera egin dugula, egindakoa Urkulluren zeinua bilakatu da. Otegi, ordea, kostatzen ari zaio atzean utzitako gatazkaren irudiarren menpekotasunetik askatzea. Irekia dagoen ezbaieraren bi aldeak horiek izanik ere, seguru nago ziklo zaharrari erabateko amaiera emateko aldarrearen aurrean garela.

Zorion agurrak



Laiane

Zorionak printzesa!! Askok maite zaitugu. Aita eta ama!! 7 muxu pottolo!!



Ane

Zorionak printzesa ondo pasa 2. urtebetetzean. Muxu asko familia guztiaren partetik eta berezian zure aitak. Askok maite zaitugu.



Nora

Zorionak printzesa, 7 muxu pottolo lker, aiatxo, amatxo eta familiaren partetik.



Enaut

Kaixo mutil polita!! Ondo pasa zure 13. urtebetetzean, Oier aitona-ama eta familiaren partetik bihotza!!!



Oinatz

Urte askotarako printzesa polita! 9 muxu pottolo aita, ama, Iraitz eta Garaziren partez. Ondo Pasa!



Naroa

Zorionak printzesa zure 11. urtebetetzean. Muxu pottolo pila bat familiaren partetik.



Maddi

Zorionak gure pottoka!!! Hiru urte zoragarri gu zoriontsu eginez zure irrifarrearekin. Aiatxo, amatxo, Oier eta Unax.



Jare

Zorionak polita! Marrubizko hiru muxu handi gure etxeko neska handiandiarri!! Malen, Udane, aita eta amaren partetik!!



Ane eta Clara

Zorionak zuen urtebetetzean! Askok maite zaituztegu, muxu pilo bat familia osoaren partetik!!



Javier eta Delia

25 urte ezkontuta jada! Ongi ospatu zilarrezko ezteiak eta zorionak, Janire eta familiaren partetik.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Apartamentoa alokatzen da Cala de Finestrat-en (Alacant). Bi gela, egongela, sulaldea, bi komun eta terrazarekin. Horretaz gain, igerilekua eta padel pistarako sarrera. Hondartza 200 metroa gertatzen da. Informazio gehiagorako, 667 731 456.
- Mobil home bat alokatzen dugu Landetan uztailearen bigarren hamabostaldian (17-31) sei pertsonentzat egokia. Igerileku klimatizatua (sauna eta jacuzziarekin) eta kanpoan igerilekuak tobogan eta uretako jolasekin. Aste bakarra edo hamabostaldia alokatzen da. 943 369 23.

Salerosketa

- Xbox 360a, hainbat joku eta bi mando salgai. Prezioa negoziagarria. 616 284 801.
- Bidaietarako sehaska, hamaka, parketxo bat eta 9 eta 15 kg. arteko haurrarentzat kotxerako aulkia salgai. Prezioa negoziagarria. 673 256 566.

Lan-eskaria

- Gizon edadetuak zaindu, kalera lagundu, ospitalean zaintza egin edo baserri lanak egiteko mutila eskaintzen da. 618 342 007.
- Atariak, bulegoak edota etxeak garbitzen egin nahi nuke lan. Nagusiak ere zainduko nituzke. Elena 673 25 65 66
- Etxeko lanak egiten lan egin nahiko nuke. Externa, interna edo orduka. Paperak ditut. Lanean hasteko prest. 632 221 913.
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest. 943 404 015/606 661 048
- Pertsona adinduak, zein haurrak zaindu edo garbiketara lanak egiteko prest, externa modura. Esperientzia dut. Ruth, 617 888 854.

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

- June Palomo Zabaleta, maiatzaren 17an.



Heriotzak

- Maria Luisa Beloki Balerdi, maiatzaren 25an, 93 urte zituela.
- Alfonso Rodriguez Castro, maiatzaren 23an, 81 urte zituela.
- Maria Macazaga Genova, maiatzaren 18an, 94 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

Ostirala, 27 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 28 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 29 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 30 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 31 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 01 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 02 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elosegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munterri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidor Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

EUSKARA



Autoeskoletako ordezkariak eta Jon Antxordoki Euskara zinegotzia, atzo eguerdiko aurkezpenean.

Gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpaina abian

400 euroko sariak banatuko dira ikasleen artean

Azken urteetan bezala Buruntzaldeko udalek gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz ateratzen duten herritarrak sarituko ditu. Atzo egin zen egitasmoaren aurkezpena Okendo plazan eta bertan izan ziren eskualdeko autoeskoletako ordezkariak. Eskualdeko Udalen izenean Jon Antxordoki zinegotzia aritu zen.

TXINTXARRI

Ekimen honekin lortu nahi da herritarrek esparru honetan ere euskaraz egitea eta pozik azaldu ziren atzoko agerraldian, egitasmoak duen harrerarekin. Izan ere, parte hartzaile kopurua urtez urte gora doala azpimarratu zuten agerraldian. "2015ean 113 izan ziren Buruntzaldea osoan gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egitera animatu zirenak", esan zuen Jon Antxordokik.

Sariak

Sariak eskuratzeko baldintza

batzuk ditu egitasmoak bertan azaldu moduan. Buruntzaldeko herriren batean erroldatuta egon beharko da, gidabaimenaren atal teorikoa gainditu beharko da 2016ko urtarilaren 1etik abenduaren 31 bitartean, egitasmo honekin lankidetzan diharduen Buruntzaldeko auto eskolaren batean, eta, azkenik, inprimakia beteta entregatu beharko da. Honakoa autoeskolaren bertan egingo dute gidari berriek.

Lasarte-Orian, Lasarte eta Mugica auto eskoletako ikasleek parte hartu ahal izango dute ekimenean. Horrez gain, aipatu behar da herritarren

batek eskualdeko beste autoeskolaren batean atera nahiko balu aukera duela; Andoingo Bengoetxea eta Mendi; Astigarragako Otamendi, Hernaniko Hernani, Lagunak eta Otamendi; eta Urnietako eta Usurbilgo Solozabal auto eskolak daude egitasmoari atxikita.

Sarien zozketa 2017ko urtarilean izango dela iragarri zuen Antxordokik aurkezpenean: "10 sari emango dira: Andoainen bi, Astigarragan bat, Hernanin hiru, Lasarte-Orian bi, Urnietan bat, eta Usurbilen bat. Sarietako balioa izango dute, gehienez 400 euro".

Iragarri zuten, aurki egitasmoaren informazioa jasoko dute etxeetan 2016an 18 urte beteko dituzten gazteek. Hala ere, azpimarratu zuten, edozein herritarrek eskura dezake informazioa Buruntzaldeko autoeskolatan.

Sorgin Dantzako entseguen hasiera

San Pedro jaiak ate joka ditugu. Hilabete besterik ez da geratzen txupina bota eta jaiak eztanda egin dezan.

Ohitura legez, helduen txupina baino lehen, Oriatik atera eta herriko kaleak alaitzen dituen Sorgin Dantza antolatuko da. Aurten ekainaren 28ko arratsaldean izango da ekintza.

Egun horretarako guztia prest izateko, Ttakun KEK jakinarazten du, ekainaren 2an, ostegunarekin, entseguak hasiko direla.

Sorgin Dantzan parte hartu nahi duten herritarrek astearte- eta ostegunero hitzordua izango dute, 20:00etatik



Astearte eta ostegunetan Sorgin Dantzako doinua entzungai izango da Okendo plazan.

21:00etara Okendo plazan. Saio horietan dantzako pausoak ikasi edo finkatzeko aukera izango da.

Eguraldi txarra eginez gero, saioak Landaberri Garaikoetxea ikastolako aterpean egingo dira.



LASARTE-ORIA AHAL DU Armadari buruzko solasaldia

Asteazken arratsaldean, Villa Mirentxun, Luis Gonzalo Segura armadako teniente ohiarekin solasaldia egin zen. Honen oinarri, Gonzalo Segurak idatzitako 'Codigo Rojo' liburua izan zen.

Arkaitz Naya Lasarte-Oriak Ahal du hautesle taldeko zinegotziak aurkeztu zuen egilea. Luis Gonzalo Segurak armadak Euskal Herrian izandako papera laburtu eta azken hamarkadetan Estatuan gertatutako hainbat ekintzen aurrean izandako jarrera aipatu zuen, hala nola, Herrialde Katalaneko kontsulta. Era berean, bere ustez, konstituzioan egin beharreko aldaketak aipatu zituen.

Villa Mirentxura hurbildu ziren herritarrek armadarekin zerikusia duen hainbat gaiez galdetzeko aukera izan zuten.

ERRAUSTEGIA

Giza-katea osatzeko hitzordua

Igandean, Donostian osasunaren alde eta erraustegiaren kontra giza-katea egingo da Onkologiko eta Diputazio bitartean. Lasarte-Oriak Easo Plaza eta Londres Hotela bitarteko zatia osatu behar du eta bertan 500 lagun egotea espero da.

Aire Garbia plataformak lasarteoriatarren biltzeko ordu eta lekua finkatu du, 11:30ean Easo Plazan. Herritarrak puntualak izatea gomendatzen du plataformak: "Katea osatzeko batzorde beste 12:00ak arte izango dugu".



KIROLA

Gaztetxoaren artean kirola sustatzen

Alebin mailako gaztetxoek larunbat goiz ederra igaro zuten Michelingo atletismo pistan, Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatutako kirol sustapen jardunaldian.

Amaieran, kirol materiala zozketatu zuten parte hartzaileen artean. Erika Santanok irabazi zituen padeleko palak, Aroa Gonzalezek tenisaren aritzeko erraketak, eta, azkenik, Irati Valdiviak bizikleta.

HAUTESKUNDEAK

Mahaiak osatzeko zozketa

Herritarrek dagoeneko udalaren webgunean, *lasarte-oria.eus*, kontsultatu dezakete ekainaren 26ko hauteskundeetako mahaiak egotea egokitu zaien. Atzo burutu zen zozketa, ez ohiko batzarrean, alderdi politiko guztien ordezkariak bertan zeudela.

9.719 bizilagunen artean zoriz egin zen aukeraketa udalak azken urteetan erabiltzen duen programa informatikoaren bidez. Hau gidatzen aritu zen udaleko informatika arduraduna Juantxo Morcillo, zozketa gardentasun osoz eta arazorik gabe burutzen zela ziurtatuz.

Guztira 216 herritarrek osatzen dute zerrenda, mahai bakoitzeko presidente bat eta bi kide; kargu bakoitzaren bi ordezkariak ere izendatu dira.

Erketzen asteburua

II. Dantzari Eguna eta XXVIII. Dantzari Txiki egunak izango dira

Asteazkenean Udaleko ordezkariekin batera aurkeztu zuten Erketzek asteburuko egitaraua. Bigarren urtez Dantzari eguna izango da biharkoa gurean eta bertan Faltzesko Makaia eta Andoaingo Urki taldeak izango dira dantzan. Igandean Dantzari Txiki Eguna egingo da eta bertan 200 umek parte hartzea espero dute antolatzailleek.

TXINTXARRI

Udalaren sostenguarekin antolatu du aurten ere Erketz dantza taldeak asteburu osoko egitaraua. Herriko euskal dantza taldeak ohitura zuen Dantzari Txiki Eguna antolatzea, aurtengoa esaterako 28. edizioa izango da.

Iaz Euskal Dantzei asteburu osoa eskaintzea erabaki zuen taldeak eta aurtengoan ere jarraipena eman diote egitasmoari.

Asteazkenean, Udaleko ordezkariekin batera, Jesus Zaballos alkatea tartean, Erketzeko ordezkariak agerraldia egin zuten Antonio Mercero plazan asteburuko egitaraua aurkezteko.

Gaizka Ormazabalek azaldu zuenez, biharkoan Nafarroako Faltzes herritik Makaia dantza taldea etorriko da eta Andoaingo Urki. 18:00etan desfilea hasiko dute Zumaburu eskolatik, bertan du herriko dantza taldeak entsegu lekua, eta Okendo plazara bidean

zaharren egoitzan eta zentroko autobus geltokian dantzak eskainiko dituzte.

19:00etan Okendon hasiko da ekitaldi nagusia eta honetan bakoitzak 20 minutu inguruko emanaldia egingo du.

“Uste dugu emanaldiak ordu beteko iraupena izango duela, eguraldi txarra egitekoan, desfilea bertan behera geratuko litzateke eta emanaldia kultur etxera mugituko genuke”, azpimarratu nahi izan zuen Ormazabalek.

200 parte hartzaile

Dantzari Txiki egunari dagokionez, 28. edizioa izango da igandekoa.

11:00etan, Faltzesko Makaia, Errenteriko Ereintza, Sestaoko Salleko, Usurbilgo Orbeldi eta herriko Kukukako dantzariak bat egingo dute Erketzekoekin Isla plazan. Bertan hamaiketako egin eta ondoren, taldeko herriko auzoetan dantzak eskainiko dituzte.



Erketz eta Udaleko ordezkarien agerraldia izan zen asteazkenean asteburuko egitarauaren xehetasunak azaltzeko.

16:30ean Okendon elkar-tu eta kalejirarekin hasiko dira denak, jarraian 17:00ak aldera, emanaldiari hasiera eman-got diotela aurreikusten da.

“Taldea bakoitzetik bikote batek agurra dantzatuko du oholztan eta ondoren talde bakoitzak dantza bat edo bi eskainiko ditu, hamar bat minutu. Ikuskizunari amaiera emateko Fandango, Arin-Arin

eta kalejira bat egingo dugu denek”.

200 ume inguru espero dituzte Erketzekoekin aurtengoan. Dantzariak Ttiriki-Ttarrakakoak izango dituzte lagun herria euren doinuekin girotzen.

Iganderako, larunbaterako bezala, prestatu dute beste agertoki bat eguraldi txarra egingo balu. “Kasu honetan

emanaldia Michelinen egingo litzateke”.

Erketz eta Udaleko ordezkariak agerraldian herritarrak animatu nahi izan zituzten bertaratzeko. “Bi egunetako ikuskizunak politak izango dira. Igandean hainbeste haur dantzan ikustekoa izango dela uste dugu”, aipatu zuen Erketzeko idazkari Gaizka Ormazabalek.



Sasoeta-Zumaburu ikastetxe gazteak ederki moldatu ziren kantuan.



Landaberri ikastolako gazteak ere ez ziren makal ibili. Bertso-antzerkiak egin zituzten.

Gaztetxoek bertsoak oholztan

Landaberri ikastolako eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxe 5. eta 6. mailako gazte-txoek Lasarte-Orian bertsolari harrobia egin daitekeela erakutsi zuen asteazkenean.

Gazteek guraso, senide edo lagunaren aurrean ikasturtean zehar ‘Gu ere bertsoan’

ekimenean ikasitakoaren lagin bat erakutsi zuten. Manuel Lekuona kultur etxe-ko aretoa lepo beteta egon zen bi saioetan.

Gelaka, mozarrotuta edo mozarrotu gabe oholztara igo, lotsa eta urduritasuna alde batera utzi eta saiorako

bereziki prestatutako bertsoa eskaini zuten. Batzuk gainera aurretik antzerkitxoak ere egin zuten gaia hobeto uler zedin.

Hamaika gai jorratu zituzten zortziko txiki edo handian, hala nola, ikastola, olinpiadak, oporrak edo guda.

Elkarlana

Gipuzkoako Bertsozale Elkar-teak duela hamasei urte hasi zuen ‘Gu ere bertsoan’ izeneko proiektua ikastetxeetan. Urtez urte hedatzen joan da proiektua Gipuzkoako herri gehienetara.

Lasarte-Orian, Udalaren eta Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeen inplikazio eta erakundearen arteko elkarlana beharrezkoa

da proiektua aurrera eramateko.

Proiektuaren azken helburua asteazkenean burutu zen ikasturte amaierako jaialdia da. Hori esker, ikasturtean zehar bertsolariaren bueltan lanean jardun diren neska mutilei jendaurrean aritzeko eta proiektu publikoan trebatzeko aukera eman zaie. Horretarako, beharrezkoak diren baliabideak eskaini baitzaizkie.

Badator Teresa sorgina!

Asteartetik igandera egitarau zabala Zabaletako jaietan

Uda gerturaten ari da eta badatoz lehenengo festak gurea. Zabaletako bizilagunak asteartean hasiko dira motorrak berotzen. Ohi bezala joko ezberdinak antolatu dituzte haur eta gaztetxoentzat astearte, asteazken eta ostegunean. Ostiraletik aurrera berriz festak eztanda egingo du.

TXINTXARRI

Zabaletako jaiak ate joka daude. Asteartetik haur eta gaztetxoentzako jolasak izango dira arratsalde-ko. Txikienek ez dute aspertzeko tarterik izango, asteartean eskulan ezberdinak egiteko aukera izango dute, kamisetak margotu, bitxiak egin... egun honetan kamiseta margoketan parte hartzeko, etxetik elastiko zuria eraman beharko dute umek. Asteazkenean arrantza eta bestelako jolasak egingo dira baita antzerki saioa ere. Ostegunean berriz, familia jolasen txanda izango da. 18:00etatik aurrera izango dira egunero eta ohitura den bezala, 20:00etan japoniar bonbak jaurtiko dira.

Asteburuari begira, ostira-lean antzerki saioak irekiko du ekintza sorta zabala. Ondoren, txokolatada gozoa dastatzeko aukera izango dute bertaraten diren guztiek eta 19:00etan Teresa sorginari ongi etorria

emango zaio pregoia eta txalapartaren doinuekin. Jarraian, dantza eta twister joko erraldoian parte hartu ahal izango da. 19:15ean, Dinbi Banda batukadaren doinuek girotuko dute auzoa Jalguneren emanaldiari hasiera eman aurretik. 22:00etan Kukukako dantza garaikideko ikasleen emanaldiaz gozatu ahal izango da eta egunari amaiera emateko, musikak hartuko du lekukoa eta Gurera eta Iratza taldeen kontzertuak izango dira.

Ekintza sorta astebururako

Larunbatean berriz, 9:00etako dianak esnatuko ditu Zabaletako bizilagunak. 11:00etan, hirugarren Sorgin krosa egingo da eta auzotik 6,6km-ko ibilbidea osatu beharko dute parte hartzaileek. Honetan izena ematea doan da eta dagoeneko aukera dago auzoko dendan, Artizar tabernan eta egunean bertan, Antonio Blas plazan. Aurreko bi edizioetan Raul Gomez Margallo izan da lehe-



Umeei zuzendutako jokoak izango dira astearte, asteazken eta ostegunean Antonio Blas plazan.

nengoa helmugaratzen. Ikusi behar aurtengoan errepikatu edota txapelak auzotarren batek janzten duen. Kroseko parte hartzaileek hamaiketako izango dute ondoren indarrak berreskuratzeko.

Egurdian, IX. Joxe Migel Aranzadi eskoba txapelketa jokatu da eta bazkal ostean berriz, mus txapelketa. Arratsaldean txirindulariek hartuko dute auzoa eta lasterketak izango dira 18:00ak arte. Ondoren, herri kiroletan trebatzeko aukera izango dute etxeko txikienek. Gorputza astintzeko tartea

izango da ere euskal zumba dantza saioarekin eta japoniar bonbekin bukatuko da txikienek.

Ohiturari jarraiki, bertsoak izango dira parranda gauaren aurrekari. Bertan arituko dira Ane Labaka, Oihan Iguaran, Unai Gaztelumendi eta Asier Azpiroz Unai Muñoa gai jartzailerik. Gauerdia iristearekin batera Bihozkada eta Erokomei taldeen kontzertuak izango dira.

Igandean 9:00etan diana eta auzo garbiketa egingo da parranda gaueko aztarnak

borratzeko. Horrela, 11:00etan Kukukaren euskal dantza saioa izango da. Ordu berean, tortilla lehiaketa hasiko da. 12:00etan txarangak girotuko du auzoa eta ondoren, Idoia Etxeberria harri jasotzailearen saioa izango da. 13:15ean proba misto nagusia egingo dute auzotarrek eta herri bazkaria jarraian. Arratsaldean, Xumela abesbatzarekin kantu festa izango da eta dantza Errebal taldearekin. Toka txapelketa egingo da eta 20:30ean, Teresa sorginari agur esango diote zabale-tarrek.

'Hemen eta han...takatan!'

Herriko Dinbi Banda eta Zornotzako Zaparrada taldeek elkarlanean antolatuta, larunbatean 'takatan' eta 'takatan' aritu ziren Euskal Herriko hainbat batukada talde, herri bizkaitar horretan ospatutako topaketan. Aurten goa laugarren edizioa izan da; Lasarte-Orian egin ziren aurreko hiruak.

Goizetik hasi eta gaueko ordu txikietara arte, etengabe-

koak izan ziren perkusio hotzak Zornotza aldean.

Tailerrekin hasi ziren topaketak, 11:30ean. Ondoren, 13:30ean, Zornotzako kale eta bazterrak girotu zituen Burrumba elektrotxarangak. Gorputza dantzan jarri ostean, 15:00etan bazkari legea egin zuten denek elkarrekin, arratsaldean zeto-renerako indarrak hartzeko. 18:00etan hasi ziren batukada taldeen emanaldiak; Zornotza-

ra bertarutakoek gogotik gozatu zuten guztiekin. Egunari amaiera biribila emateko, pare bat kontzertu entzun eta ikusi zituzten; Irtenbide eta Los Zopilotes Txirriaos taldeak igo ziren taula gainera.

Dinbi Banda herriko batukada taldeko kideek primeran pasa zuten iragan larunbatean, eta eskerrak eman dizkiote Zaparrada batukada taldeari, egindako lanagatik.



Primeran pasa zuten Dinbi Bandak Zornotzan, Euskal Herriko IV. Batukada Topaketan.

GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte dohain)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

Ekainaren 3tik 5era

EKO esperientzia bizi ezazu!

bioterra.ficoba.org

gonbidapen hau moztu eta azokaren sarreran aurkeztu

P dohainik

Ficobara, zatorrean!
(Irun-Ficoba geltokia)

euskotren

ANTOLATZAILEA

FICOB A
IRUN. GIPUZKOA
www.ficoba.org

- + 3 pabiloi tematiko
- + Osasun eta ongizate jasagarria
- + Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak
- + Show Cooking
- + Bioterraza, elikagai ekologikoekin
- + Zozketak
- + Haurrentzako aktibitateak!

LABURRAK.-

Iraia Iparragirre, urtebete gehiagoz Realean

Datorren denboraldian Realean jokatzen jarraituko du Iraia Iparragirrek, kontratua 2017ra arte luzatzea adostu baitute jokalaria eta klubak berak. Realaren webgunean egindako adierazpenetan, herritarrak azpimarratzen du "ohorea" dela kontratua beritzea eta "talde honetan gozaten jarraitzea". Urte honetan ezin izan du gehiegi jokatu, lesioak tarteko, baina datorren sasoi "hobea" izango duenaren esperantza dauka Iparragirrek. Liga amaitzeko hiru jardunaldi falta dira, eta, ostean, Erreginaren Kopa jokatuko du Igor San Miguelek zuzendutako taldeak.



Nely Carla Alberto, Frantziako Kopako garaile

Brest Bretagne Handball taldeak Frantziako Kopa irabazi zuen iragan larunbatean, Toulon 25-16 mendean hartuz. Nely Carla Alberto lasarteoriatarra da Brest-eko jokalarietako bat. Lau gol sartu zituen finalean. Taldea bigarren mailan aritu da aurtentzen, baina dagoeneko kategoria gorenera igota dago. Datorren urtean non ariko den ez daki Albertok, eskaintza ugari ditu eta.



LOKEko judoka alebinak ederki Hernanin



Hirugarren postua eta brontzezko domina erdietsi zituen LOKE iragan larunbatean, Hernanin jokatutako alebin mailako Gipuzkoako taldeko txapelketan. Santi Mezzena, Hector Iñigo, Eñaut Bravo, Markel Otaegi, Julen Fernandez, Ekhi de la Cruz, Oier Guisado, Oier Bocos eta

Ibai Esquivel gaztetxoek ordezkatu zuten LOKE Hernanin. Denera lau borrokaldi egin zituzten: hiru irabazi zituzten eta bat galdu.

Luken Carbayedak garaile Mutrikan

Buruntzazpi taldeko junior Luken Carbayedak Mutrikan jokatutako Atxukale saria irabazi zuen joan den larunbatean. Era berean, mendiko sailkapenean ere bera izan zen nagusi. Iñigo Altuna taldekidea zazpigarren postuan helmugaratu zen. Infantil mailan, Asier Pozo eta Beñat Carbayedak lehenengo eta hirugarren izan ziren, hurrenez hurren.



Eskola Kirola egitasmoaren jaia bihar goizean

Urteroko jai handiarekin emango diote amaiera aurtengo Eskola Kirola egitasmoan parte hartu duten arduradun, begirale eta 400dik gora gaztetxok. Benjamin eta kadete bitarteko haurrak 9:30ean hasiko dira jolasten, eta 10:00etan aurrebenjaminak. Hainbat kirol diziplina landuko dituzte Michelingo instalazioetan. Parte hartzaileen artean hainbat opari banatuko dituzte antolatzaileek, amaieran.

KIROL AGENDA.-

IGERIKETA

Larunbata 28

Artxanda, Bilbo, egun osoan zehar
Buruntzaldea IKTKo zenbait alebinek Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoa jokatuko dituzte. Goizeko jardunaldia 10:00etan hasiko da, eta 16:30ean arratsaldekoa.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Igandea 29

Abetxuko, Gasteiz, egun osoan zehar
LOKEko gimnastek Euskadiko amateur txapelketa jokatuko dute, goiz eta arratsalde.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 28

Buruntz-Azpi, Lasarte-Oria, 19:30ean
Lasarte-Oriako III. MTB martxa jokatuko da. Buruntz-Azpi elkartetik irtengo dira txirrindulariak.

TRIATLOIA

Larunbata 28

L'Ampolla, Tarragona, 7:00etan
Zumeatarra triatloi taldeko kide den Andoni Illarramendi herritarrak IronCat proba jokatuko du. 3,8 kilometro egin beharko ditu igerian, 180 bizikletan eta 42 korrika.

MENDI LASTERKETAK.-

Gustuko tokietan, aldaparik ez

Hainbat mendi lasterketa burutu dituzte herritarrek asteburuan

Mendian gora eta behera ibili dira hainbat herritar, iragan asteburuan. Zegama-Aizkorri entzutetsua burutu zuten Ivan Granado eta Xabier Carcedok, eguraldi ezin kaskarragoari aurre eginez. Beñat Los Arcos eta Miguel Granadok, aldiz, Goizutrail lasterketako ibilbide laburreko proba burutu zuten. 2. eta 16. postuetan ailegatu ziren helmugara.



Bost ordu eta lau minututan burutu zuen Zegama-Aizkorri Ivan Granadok (eskubian).

IÑIGO GONZALEZ

Titularreko esaldia zentzu figuratuan ulertu behar da, jakina, herritarrek pasa den asteburuan egin zituzten probek aldapa majo askoak baitzituzten. Maldak, ordea, ez dira izaten horren gogorak, baldin eta gustuko kirola praktikatzeko bada eta zaleen etengabeko animoak jasotzen badira.

Azken hori da Zegama-Aizkorri mendi maratoi entzutetsua berezi egiten duen ezaugarrietako bat. Eguraldi ezin kaskarragoa izan bazen ere, zale ugari bildu ziren ibilbide izkinetan, lasterkariei animoak emateko. Horien artean egon ziren Ivan

Granado eta Xabier Carcedo herritarrak. Biek lortu zuten proba amaitzea.

Granadok bost orduetatik jaiste zuen xede, baina ezin izan zuen lortu, lau minutu-erengatik. Dena den, "pozik" dago egindako lanarekin: "Eguraldi oso txarra egin zuen igandean; 40 minutuz eskuak ez nituen sentitu ere egiten. Hainbat korrikalarik ezin izan dituzte egin euren markak, hamar minutu goitik ibili dira, eta, nik, behintzat, iaz baino sei gutxiago egin ditut". Helmugara 78. postuan iritsi zen.

Xabier Carcedok lehenengo aldiz bizitu zuen Zegama-Aizkorri, igandean. Horrela laburbildu digu esperientzia: "Primeran bukatu

nuen proba, baina benetan gogorra iruditu zait; lehenengo zatian, Aizkorri puntaraino, gozatu egin nuen; gero, Urbiaraino, mantso eta sufritzen, eskuak izoztuta, eta 28. kilometrotik aurrera berriro gozaten". Muskularki "primeran" bukatu zuen, eta giroa zein antolakuntza "zoragarriak" direla esan. Sei ordu eta erditan amaitu zuen.

Beñat Los Arcos, podiumean

Goizutrail probako ibilbide laburrean -10 kilometro- bigarren helmugaratu zen Beñat Los Arcos herritarra, iragan larunbatean. 55 minutu eta 36 segundotan osatu zuen ibilbidea. Xabi Intxauspe hernaniarra gailendu zen, 54:30eko denbora eginez. Podiuma Mario Lavin lekunberriarrak osatu zuen. Lasterketa ongi ematen zaio Los Arcosi, iaz hirugarren postua eskuratu baitzuen.

Miguel Granado herritarrak ere jokatu zuen aipatu proba hori; hamaseigarren postuan iritsi zen helmugara. Ordu bate, hamaika minutu eta hamahiru segundotan geratu zuen kronometroa lasterkari lasarteoriatarrak.



Bigarren helmugaratu zen Beñat Los Arcos Goizutrail laburrean (10 km.). FELIX LOIARTE

OSTADAR.-

Ostadar SKTren egun handia bihar

Denboraldiari amaiera biritu emateko, Ostadar SKTK festa prestatu du biharko. Aurtengoa egun osoko jaia izango da, herriko areto-futbol txapelketaren finalak ere bihar jokatuko direlako.

10:00etan hasiko da kontsolazio finala. Also eta Reformas Lagunak taldeek jokatuko dute, Udal Kiroldegian. Jalguneko lagun txanda izango da 11:30ean; euren artean par-

tidatxo bat jokatuko dute. Final handia 12:00etan hasiko da; Izkiña eta Txindokik neuruko dituzte indarrak.

Norgehiagoken ostean, 14:00etan, areto-futbol alorrak antolatuta, bazkaria egingo dute Loidibarren pilotalekuan. 16:00etan berriz, herriko txapelketako sariak banatuko dira.

17:00etatik 19:30era kirol guneak (saskibaloia, eskalada...) egongo dira martxan Loi-

dibarrenen. 17:30ean, irteera egingo du Ipar Martxa alorrak.

19:30ean hasita, Ostadarreko talde bakoitzeko jokalaria jatorrenei sariak emango zaizkie. Horrekin batera, Euskaren Maratoiak Auzolan saria jasoko du, eta Jon Ander Pueras errugbi jokalaria kirolari onenarena. Hori eta gero, pilotalekuan pantaila erraldoi bat jarriko da, futboleko Champions Leagueko finala ikusteko.

Agenda

Larunbata 28, 18:15ean, Okendo plaza



Euskal dantza erakustaldia

Lasarte-Oriako Erketz EDTren eskutik, II. Dantzari eguna egingo da. Andoaingo Urki dantza taldea eta Faltzesko Makaia taldeak parte hartuko dute. Lasarte-Oriako kaleetatik desfilea egingo dute. Bi geldialdi egingo dira bata Biyak Bat egoitzaren aurrean, bestea Kale Nagusiko geltokian. 19:00etan, taldeen emanaldia izango da. Eguraldi txarra eginez gero, Manuel Lekuona kultur etxean egingo da.

Larunbata 04

09:00etan, diana.
11:00etan, Zabaletako 3. sorgin-krosa.
12:00etan, IX. Joxe Migel Aranzadi eskoba txapelketa.
15:30ean, IX. Joxe Migel Aranzadi mus txapelketa.
16:30etik 18:00etara, Txirrindulari lasterketak.
18:15ean, Porrotzekin herri kirolak umeentzat.
18:30ean, Euskal zumbadantza saioa.
19:30ean, japoniar bonbak.
20:00etan, bertso saioa:
Ane Labaka, Oihan Iguaran, Unai Gaztelumendi eta Asier Azpiroz.
Gai jartzaile: Unai Muñoa.
00:00etan, Gazte rock gaua:
Bihozkada eta Erokomeri

Igandea 05

09:00etan, diana eta auzo garbiketa.
11:00etan, Kukukaren euskal dantza saioa.
11:00etan, Tortila lehiaketa.
12:00etan, txaranga.
12:15ean, Idoia Etxeberría harrijasotzailea.
13:15ean, Proba misto nagusia.
14:30ean, herri bazkaria.
17:30ean, kantu festa xumela abesbatzarekin.
18:00etan, Errebal taldea.
18:30ean, toka txapelketa.
20:30ean, Teresa sorginari agurra eta azken traka.

Zubietan

Udaberri Festa

ZUBIETAN

Ostirala 27, 17:00etatik aurrera Antzerkia, jokoak, afari-merienda eta ondoren disko festa egingo da.

Lasarte-Oria

Dantzari Txiki Eguna

LASARTE-ORIA

Igandea 29, goiza

Erketz EDT-k antolatzen duen 28. Dantzari Txiki egunean, Euskal geografiako sei taldek auzo ezberdinak alaituko dituzte.

OKENDO PLAZA

Igandea 29, arratsaldea

Dantza taldeek alarde txiki egingo dute Kale Nagusian zehar eta ostean, emanaldia eskainiko dute.



Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Maiatzean zehar

Estudio del Pintor akademiako ikasleek haien lanak aurkeztu dituzte.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Astelehena 30- Ekainak 11

Brancussi akademiako ikasleen lanak ikusgai izango dira.

Zabaletako Jaiak

ANTONIO BLAS PLAZA

Asteartea 31

18:00etatik 20:00etara, haurren jolasak.
20:00etan, japoniar bonbak.

Asteazkena 01

18:00etatik 20:00etara, haurren jolasak eta antzerkia.

sak eta antzerkia.

20:00etan, japoniar bonbak.

Osteguna 02

18:00etatik 20:00etara, haurren jolasak eta oparien zozketa.

20:00etan, japoniar bonbak.

Ostirala 03

18:00etan, antzerkia.

Ondoren, txokolatada.

19:00etan, Teresa sorginaren jaitsiera txalapartarekin eta pregoia.

19:05ean, dantza herrikoa.

19:05ean, Twister erraldoia.

19:15ean, Dinbi Banda batukada.

19:30ean, Jalguneraren emanaldia.

22:00etan, Kukukaren dantza garaikidea.

23:00etan, Gururan eta Iratzar taldeen kontzertua.

Herritarren txokoa

Eskutitza

Mila esker mila aldiz

"Aizue, bagoaz ..." bota ziguten. "Ongi etorriak izango zarete" guk inkontziente xamar erantzun. "200 lagun, lo egiteko leku estalia beharko dugu, eta bazkaria elkarrekin egingo dugu, ezta?"

Eskerrik asko REM eta SASOETAko zuzendariei zuen arretagatik eta gure lana errazteagatik.

Eskerrik asko Xirimiri, zuen atea beti irekita daudelako. Baita ere, Buruntzazpi, Intza, Arrieskalleta, Udaberri eta Lasartearra, babarrunak umezurtz ez uzteagatik eta sakramentuak izardun sukaldariak bezain ondo prestatzeagatik.

Esker mila gure ezarriak bustitzeaz gain zuen diruak, edariak eta denbora guri eskaintzeagatik, Elurtza, Artizar, Gure-etxea, Trumoi, Furia-beltza, Ilargi, Avenida, Insausti, Galizia, Arkupe, Oreka, Jalgi, Garoa, Asador Juanxo eta Yolandako tabernari eta taberneei. Euskogelari ere.

Eskerrik asko Txalagore, maitasunez. Oaintxe in deu txaranga, alai-alai bai plaza bai gu. Kukuka, goi

mailako ongi etorria. Sorgin dantza, plazerra. Rezibatukada, zoragarri. Bixente Beltran, txistulariak antolatzeagatik eta dultzaineroak eta graier-sak txukun zuzentzeagatik. Trikipunk, musikarekiko pasioa gurekin tartekatzeagatik. Gure esku dago, hainbat amets, gureak barne aireratzeagatik.

Uribe kopiak kartelengatik, Serigrafia losu kamisetagatik eta Keinu txapelengatik. Etkezarrera, babarrunak eta ... kategoriazkoak.

Esker aunitz Kris Bernal, Lluís Suñer, Unai Apaolaza eta SAREri, jai eta borroka beti elkarrekin.

Mila esker parte hartu duzuen norbanakoei. Txoznan, furgonetariei, mahaiak jartzen, zerbitzatzen, jasotzen, soinua eta argiak, antolatzen... eta kamioi toloak uzteagatik.

Thank you Pat Rice. Moltes gràcies a els companys i companyes de Torredembarra.

Hurrengo arte.

TORREDEMBARRAKO LAGUNAK TALDEA

Errausketarik ez

Hondakinak etxean gaika sailkatu eta egoki bilduta, errefus gutxi sortuko dugu eta ez da erraustu beharrik izango. Gipuzkoan agintari berriek, ordea, bide hori alde batera utzi eta mila milioi eurotik gora gastatu nahi dituzte erraustegia eraikitzeko. Erabaki oso kaltegarria gure osasun eta ondasunarentzat.

Gipuzkoa ekonomikoki ito egingo du egitasmoak. Erraz esaten da mila milioi euro, baina kostata ordaindu. Garesti. Gipuzkoarrok ordainduko dugu oso osorik, tasa eta zergen bidez, ondorengo hamarkadetan. Eta bada diru hori zertan erabili. Arnasa behar dugu, are gehiago, krisi garaian.

Erraustegiak, gainera, kutsatu egingo du. Osasunarentzako oso kaltegarria den ke eta gai toxikoak isurtzen ditu. Ondorioz, erraustegiaren ondoan bizi direnek minbizia garatzeko arrisku handiagoa izango dute. Hainbat mediku txostenek egiaztatu dute hori.

Horregatik diogu, burua duenak ez duela etxe ondoan erraustegirik nahi. Eta bihotza duenak, inon ere ez. Osa-

sunaren alde eta errausketaren aurka gaudenak, Donostian kateatuko gara, igande eguerdian, elkarrekin. Etorri zaitez zu ere.

Atez ateko bilketarekin ehuneko 80 birziklatzen dugu herri askotan eta eredugarriak gara Europan. Hori da bidea, Zero Zabor, alegia. Etxean egingo ahalegin txikiak onura handia dakarkio denon osasun eta ondasunari. Zabaldu dezagun gure eredu, ez dezatela gure etorkizuna hipotekatu eta gure ondorengoena arriskuan jarri.

JON ANTUNA IZA

Gazteen sormena lantzen

Landaberriko Munduko Imaginarium taldea Book Trailer lehiaketan saritua

Liburu Gaztea Book Trailer lehiaketako sariak banatu ziren maiatzaren 13an, Donostiako Tabakalera eraikinean. Hiru sari nagusi eskaini ziren eta, horietako bat, norbanakoen saria, Landaberriko DBH1eko Munduko Imaginarium taldeak eskuratu zuen.

TXINTXARRI

Elsa Garciak, Xabi Vazquezek, Ander Hazasek eta Eider Iparraguirrek osatzen dute Munduko Imaginarium taldea. Jon Artetxeren 'Beti Iparralderantz' liburuan oinarritutako lanak irudi egokiak, musika aproposa eta narrazioa oso egokia duela azpimarratu zuen epaimahaiak. Hauekin eta haien irakasle Lurdex Etxeberriekin bildu gara lanari buruz gehiago jakiteko.

Irakasleak adierazi digunez, "lau urte dira lehiaketa antolatzen denetik eta hirutan norbanako saria lortzen duela Landaberriko talde batek, bi urte hauetan jarraitu lortu da. Sortzaileak dira gazteak".

Book trailerra

Galtzagorri elkarteak antolatutako Liburu Gaztea Book Trailer lehiaketarako irudi, esaldi eta musika baten bidez liburu baten argumentua azaldu behar zuten Landaberriko DBHko gazteek.

Taldeak eta Lurdexek aipatu legez, Jon Artetxeren 'Beti iparralderantz' liburua gelan landu zuten.

Liburuak gaur egungo gaia jorratzen du, Afrikako etorkinen bidaia Iparraldera eta beste hainbat gai ere aipatzen ditu, hala nola, islamismoa.

Liburua gustatzea oinarrikoa dela ere aipatu dute gazteek, baita book trailerraren lana egiteak liburu hobeto ulertzeko balio izan diela ere.

Lanketa eta zailtasunak

Hiru saio izan zituzten lana burutzeko. Horietan esaldiak, irudiak eta musika erabaki behar izan zituzten.

"Liburua irakurri eta kapitulu baten ostean, esaldi bat aukeratu behar zuten," aipatu du Landaberriko irakasleak. Ostean, talde kooperatiboan lanketan oinarrituta, taldekide bakoitzak berak aurkeztu eta guztien artean batzuk aukeratu zituzten.

"Esaldien progresio bat ere erabaki behar zuten. Zaila egin zitzairen non geratu jakitea. Izan ere, ezin baitute guztia kontatu. Gainera, esaldi gutxi batzuetan kontatu behar dute eta erakargarri egin. Azkenik, irudiekin ere

lotu behar dituzte", azaldu du Lurdexek.

Argazkiekin eta musikarekin ere gauza bera egin zuten eta aukeratzeko arazoak izan zituztela adierazi dute: "Hainbat gai buruzko argazki egokiak bilatzen arazoak izan genituen. Musikarekin ere lan zaila izan genuen ez zegoen gure gustukorik, oso azkarrak edo oso motelak ziren".

Azken saioan, elementu guztiak batu zituzten Movie maker bidez, baina lana etxean amaitu behar zuten. Eta orduan, arazoak izan zituztela aipatu dute, "argazkiak borrotatu" eta "artxiboa irekitzeko".

Arazo horien guztien zergatia Lurdex Etxeberria irakasleak azaltzen digu. "Instrukzioak ez zituzten jarraitu. Iruditzen zaie guztia Play Stationak bezala funtzionatzen duela, makinaren aurrean jarri eta gauzak tita egin daitezkeela. Hau ez da horrela, teknika bat aplikatzea da".

Guztira hilabeteko lana izan zela aipatu dute gazteek.

Lanak aukeratu

Ostean, beste ikasleen iritzia jaso zuten. Izan ere, taldeko kideek azaldu moduan, DBH1 eta DBH2 milako gaztetxoek egin baitzuten lana. "Guztiak liburu ezberdinak genituen. Gure kasuan, bi gelako kideak sei taldeetan banatuginen eta



Munduko Imaginarium taldeko kideak saria jasotzen.

GALTZAGORRI ELKARTEA

beste geletako lanak bozkatu genituen".

Lurdex Etxeberria irakasleak aukeraketa bat egin eta gela bakoitzak beste gela bateko lanak aztertu zituen. "Egileak nortzuk ziren jakin gabe, gela bakoitzak bere hautagaiak aukeratu zituen eta horiek aurkeztu genituen lkastetxeen mailara. Horien artean ez zeuden lanei, norbanakoen mailan parte hartzera gonbidatu genituen", azaldu du.

Lehiaketa

Aurten 21 ikastetxek hartu dute parte. Gipuzkoako DBHko 16 ikastetxek, Bizkaiako 4 ikastetxek eta Arabako 1ek. Guztira, 1.500 bat ikasle izan dira.

241 book trailer lehiatu dira: 230 ikastetxeen mailan eta 11 norbanakoengan.

Epaimahaia Amaia Pavon HUHEZIKO irakasle eta ikus-entzunezko eta adituak, Joanes Urkixo idazle eta

gidoigileak, Eva Alberdi Eibarko Juan San Martin Liburutegiko arduradunak eta Irati Zaldua Tolosako Udal Liburutegiko bibliotekariak osatzen zuten.

Taldeak ezusteko handia eraman zuen sarituak zirela jakitean.

"Konfunditu zirela uste genuen", aipatu dute. "Izan ere, geletako puntuaketetan ez baikenuen irabazi", atxiki dute.

Baina Lurdexek aipatu legez, epaimahaiaren ustez Munduko Imaginarium taldearen lanean "irudiak, oro har, egokiak dira. Musika aproposa horrelako liburu batentzat eta narrazioa oso egokia".

Tabakalera

Saribanaketa maiatzaren 13an izan zen, Tabakalera.

Bertan ikastetxe ezberdinetako 200 pertsona bildu ziren, DBH1 eta DBH4 maila artekoak eta bertan izan zen taldea. "Gu txikiak ginen", adierazten dute.

Ekitaldian beste taldeen trailerrak ikusteko aukera izan zuten eta bertan ikusitako lanen

maila harritu zintuela azpimarratu dute: "Batean liburu bat bota eta airean geratzen zen, bitartean neska bat zegoen liburuari buruz hizketan".

Saria Kristina Fernandez, 'Beti iparralderantz' liburuaren ilustratzaileak eman zien. "Liburuan pisu dexente du bere lanak eta oso interesgarria izan zen berak saria ematea", aipatu du irakasleak.

Sariari dagokionez, "diploma eskuratzea espero genuen, baina ez horrelako saria", adierazi dute. Izan ere, e-book bat ere eskuratu baitzuten taldeak.

UBIK ezagutu

Sariaren bigarren zatia, Tabakalera UBIK sorkuntza liburutegia ezagutzea izan zen, Lurdex Etxeberriak aipatu legez. Bertako gauzak ikusi eta probatzeko aukera ere izan zuten.

"3D inpresora bat zegoen, baina ez genuen martxan ikusi. Bideojokoentzako tarte bat zegoen edo Photoshopen gauzak nola egiten diren ere ikusi genuen, kroma pareta bat ere bazegoen...", azpimarratu dute gazteek.

Gainera, Landaberriko irakasleak azpimarratu legez, "esate baterako, bertan baliabideak dituzte Book Trailer lehiaketako lanak aurrera eramateko. Ordenagailuak dituzte, asesoria teknikoa eskaini ahal dute. Horregatik, hurrengo urtean lehiaketan parte hartu nahi badute, eta irakasleak animatzen ez bada, haiek bere kasa egin dezakete. Hori bai, liburutegiko bazkide egin beharko dira horretarako".

Izan ere, irakasleak animatu edo ez, Munduko Imaginarium taldeko laukoteak hurrengo urtean ere lehiaketara aurkeztuko dela argi du.

